



IBARRAKO UDALA  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

### **2018/ 311 ALKATE DEKRETUA**

Ibarrako Udalak 39/2015 eta 40/2015 legeek ezartzen dituzten betekizunak betetze aldera, programa bidezko informatikari bat behar du 3 urtetarako.

Udal Idazkariaren 2018 TXJU0001, 2018TXJU0003 eta 2018 TXJU0032 txostenen baitan, 3 urtetarako programa bat aurkezten da eta kontratazio horretan jarraitu beharreko prozedura adierazten da.

Alkatetza honek apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Tokiko Erregimeneko Oinarri Arautzaileak, 21.1. artikuluan, Tokiko Erregimenaren gaien indarrean dauden Lege Xedapenen Testu Bateratua onesten duenak, 24. artikuluan eta Tokiko Erakundeen Antolamenduaren, Funtzionamenduaren eta Erregimen Juridikoaren Arautegia onesten duenak, 41. artikuluan ematen dizkidan ahalmenak erabiliz, honakoa

#### **EBAZTEN DU:**

**LEHENENGOA.-** Onartzea programa bidezko informatikari bat kontratatzea 3 urtez, 39/2015 eta 40/2015 legeek ezartzen dituzten betekizunak betetze aldera.

**BIGARRENGOA.-** Onartzea idazkaritzak aurkezturiko 3 urteko programa osoa, bertan adierazten diren eginbeharrak onartuz.

**HIRUGARRENGOA.-** Agintzea idazkaritzak hautaketa prozesua habian ezartzea eta dagoen beharra ikusita beste Administrazioetako informatikari poltsetaz baliatzea hautaketa egiteko.

Ibarran, 2018ko irailaren 13ean

IDAZKARIA

ALKATEA

Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Mikel Agirrezabala Ezkurdia